



RSC ETA MEMORIA JARDUERA ELIKA

2019

AURKIBIDEA

A. Zuzendaritzaren Gutuna

B. 2019. urtearen laburpena

1. ELIKA Fundazioaren Izaera

- a. RSC Politika
- b. Gobernu Organoak
- c. Aliantzak eta Interes Taldeak
- d. Prozesuak eta ezagutza-esparruak

2. Kultura estrategikoa

- a. Misioa
- b. Ikuspegia
- c. Balioak
- d. Helburu Estrategikoak
- e. Jardueren laburpenak

3. Dimentsio ekonomikoa

- a. Balioa handitzea
- b. Balantzea eta kontuak

4. Gizarte-dimentsioa

- a. Talde profesionala
- b. Gizartea eta ingurunea

5. Ingurumen-dimentsioa

- a. Ingurumenarekiko konpromisoa
- b. Ingurumen-zeregina

6. Etorkizuneko erronkak


A. ZUZENDARITZAREN GUTUNA

ELIKA Eusko Jaurlaritzaren eskutik jaio zen, Elikagaien Segurtasuna hobetzen laguntzeko; izan ere, alderdi hori funtsezkoa da gizartearentzat oro har. Hasiera-hasieratik, ELIKArentzat garrantzitsua izan da gizartearekiko konpromisoa. Nolanahi ere, fundazio publiko gisa ditugun legezko betebeharez eta gure egitekoaz haratago, gizarte-erantzukizuneko estrategia bat sortu dugu. Bertan, oinarrizko jarduera-ildoak eta gizarte-konpromisoko proiektu batzuk definitu ditugu.

Memoria honen bitartez, gure interes talde guztiei helarazi nahi diegu irmoki erabaki dugula ELIKA gure gizartearekin eta ingurumenarekin konprometituta dagoen erakunde aurreratu, lehiakor, solidario, hurbil eta irisgarri bihurtu nahi dugula, zeinak euskara, berdintasuna eta gardentasuna sustatuko baitituen.

2019an Urrezko A aitortpena jaso genuen Kudeaketa Aurreratuan, Euskaliten ebaluazio talde batek gure erakundeari kanpoko ebaluazioa egin eta gero. Aitorpen horrek amaiera bikaina eman dio kalitatearen, etengabeko hobekuntzaren, bikaintasunaren eta kudeaketa aurreratuaren arloan 12 urtez baino gehiagoz egin dugun ibilbideari. Zalantzarik gabe, balentria handia da gure erakundearen tamaina txikia aintzat hartuta. Hori guztia ELIKAKo taldea osatzen duten pertsonen konpromisoari eta esfortzuari esker lortu dugu.

Gure Erantzukizun Sozial Korporatiboaren (ESK) politikarekin jarraitzea apustu estrategikoa da, eta, hartara, gure interes taldeen laguntza eta prestutasuna daukagu: patronatua, bezeroak, lankideak, pertsonak, hornitzaileak eta gizarte osoa, oro har. Horiei guztiei, eskerrak ematen dizkiegu bihotz-bihotzez.



Sin. Miren Arantza Madariaga Aberasturi

ELIKAKo Zuzendaria

B. 2019. URTEAREN LABURPENA

Erakundearen kudeaketaren arloan, 2019an Urrezko A aitortpena jaso genuen Kudeaketa Aurreratuan, eta horrek berretsi egiten du sistematikoki garatzen eta hobetzen joan garela gure kudeaketa-jarduna sistemaren hainbat esparrutan: estrategia, bezeroak, pertsonak, gizartea, berrikuntza eta emaitzak. Horrez gain, agerian uzten du erreferente bilakatu gaitzkeela kudeaketa aurreratuaren arloan. Gure kudeaketa-jardunbide onen artean, Euskalitek bereziki nabarmendu ditu hauek, besteak beste: gogoeta estrategikorako prozesua, interes taldeen kudeaketa, UNE 166.006 arauak egiaztatutako Zaintza Teknologikoa eta Adimen Lehiakorra Sistema, Elikako pertsona guztien lidergo parte-hartzailea, berriki ezarritako Berrikuntza Plana, Gardentasun Ataria eta konpromiso sozialeko estrategia.

Gure produktu eta zerbitzuei dagokienez, **euskal administrazioari aholkularitza zientifikoa eta teknikoa** ematen jarraitu dugu, elikagaien segurtasunaren politikaren arloan. Zehazki, gure lanarekin erlazionatuta dauden hainbat jarduketara hartu dugu parte. Bereizki azpimarratzekoak dira elikagaien arloko alerten ebaluazioan eta kudeaketan eman dugun aholkularitza, elikagaien segurtasuna hobetzeko abiarazi ditugun proiektuak eta Basque Country 2030 Agendan eta Elikagaien Iraunkortasuneko Estrategietan izan dugun parte-hartzea. Azken horien artean, hauek aipa daitezke: elikagaien xahuketaren aurkako estrategia sustatzea, sasoiko elikagaien kontsumoa bultzatzea eta lehen mailako produktu kopuru txikiak hurbil saltzeko esparru-araudia ezartzea.

Elikakateko operadoreei emandako laguntza eta asistentziari dagokienez, gure interes taldeek egindako eskaera guztiei erantzun diegu; urtez urte, gero eta eskaera gehiago jasotzen ditugu. Batez ere, informazio- edo argibide-eskaerak dira, araudiaren aplikazioari eta baldintza higieniko-sanitarioei buruzkoak, produktuen etiketatzeari buruzkoak, elikagaien eta pentsuen kontrol ofizialei buruzkoak edo elikagaiek sor ditzaketen arriskuei buruzkoak, besteak beste. Halaber, elikagaien segurtasunaren arloko betekizunak ulertzeko eta aplikatzeko tresnak mantendu eta/edo hobetu ditugu, adibidez: elikagaien arloko legeriaren datu-basea, pentsuen arrisku-mapa, etiketatzeari buruzko mikrositea, 1000 terminotik gora jasotzen dituen WIKI-ELIKA eta elikagaien kontsumoari jarraipena egiteko aplikazioa (ELIKApp).

Gure interes taldeei ematen diegun **prestakuntzaren** arloan, hainbat gairi buruzko prestakuntzak antolatu ditugu; esaterako, gai hauei buruzkoak: elikagaiek sor ditzaketen arriskuak, elikagaien produkzioko jardunbide egokiak eta betekizun higieniko-sanitarioak, elikagaien eta pentsuen kontrol ofiziala eta abar. Parte-hartze handia izan dute, eta bertaratuen asebetetze-maila altua izan da. Halaber, gehiago hartu dugu parte beste erakunde batzuek antolatutako jardunaldi edo ikastaroetan hizlari gisa, batez ere elikagaien xahuketaren, elikadura osasungarri eta jasangarriaren, elikagaien segurtasunaren arloko araudiaren eta elikagaiek sor ditzaketen arriskuen harira. Horrez gain, kongresu eta ekitaldiak antolatzeaz arduratzen diren batzorde gehiagotako kide ere izan gara.

Azkenik, **komunikazioari eta informazioa zabaltzeari** dagokienez, gure interes taldeei informazio eguneratua ematen jarraitu dugu nazioartean elikagaien segurtasunari buruz argitaratukoiei buruz, betiko formatuetan: albisteak, txostenak, artikuluak, laburpenak, fitxak,

liburuxkak, infografiak eta bestelako informazio-materialak. Ildo horretan, informazio hori guztia ohiko baliabideetan dago eskuragarri, adibidez, korporazioaren webgunean eta kontsumitzaileari zuzendutako web-orrialdean. Biak ala biak berritu ditugu erabat azken bi urteetan. Horrez gain, Elikaberri hileko buletinean eta Twitter, Facebook eta LinkedIn sare sozialetan ere eskuragarri dago informazio hori. Bereziki nabarmentzekoa da azken urteotan handitu egin dela informazioa bide horietatik jasotzen duten erabiltzaileen kopurua, baita gure argitalpenek komunikabideetan duten agerraldi kopurua ere. Gauzak horrela, ondoriozta daiteke elikagaien segurtasunaren arloan Euskadiko erreferente bihurtzeko bidean gaudela, 2020rako egitekoan adierazi genuen bezalaxe.

1. ELIKA FUNDAZIOAREN IZAERA

ELIKA Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako Sailburuordetzara atxikitako Fundazio Publikoa da, eta bere helburua EAEn Nekazaritzako Elikagaien Segurtasuneko gradu gorena lortzeko tresna izatea da.

Fundazioa 2001. urtean eratu zen, Elikagaien Segurtasunaren arloan ezinbestekoak diren jarduerak, ikerketak eta esperientziak sustatzeko, egituratzeko eta aholkularitza emateko. Garai hartatik, elikagaien ekoizpen-kateko operadoreei eskatzen joan zaizkien Elikagaien Segurtasunaren arloko exijentziak eta beharrak finkatu dira, baita administrazio publikoari ere, operadoreen aldetik exijentzia horiek betetzea zaindu eta kontrolatzeko.

Baldintza horiek guztiek ELIKA Elikagaien Segurtasuneko erreferente bihurtzen dute; izan ere, esperientzia eta ezagutzak biltzen ditu Elikagaien Segurtasunak barne hartzen dituen esparru guztietan, kudeaketaren bikaintasun ereduak ditu, eta gainera, inguru aldakorrari egokitzen joan da, bere lana garatuz bere jarduketa-esparruan interes-talde guztien parte-hartzea sustatuz.

18 urte norabide berean, eta xede berarekin: EAEn nekazaritzako elikagaien segurtasun-mailarik handiena lortzea.

a. Gizarte erantzukizun korporatiboko politika

Fundazio publiko gisa, gure bokazioa zerbitzua da. Gure helburua ez da soilik gure sortze-xedeak betetzea eta Euskadiko Elikagaien Segurtasuna hobetzeko lan egitea. Horrez gain, zorrotzagoak izan behar dugu gure gizarte-erantzukizunarekin, euskal gizarteak gudan inbertitzen dituen baliabideei balioa ateratzen saiatuz, eta hori etika, gizarte eta ingurumenaren arloko zenbait jokabide erantzule betez eginez.

Hasiera-hasieratik, guretzat garrantzitsua izan da **gizartearekiko konpromisoa**, fundazio publiko garen heinean ditugun legezko betebeharez eta gure egitekoaz haratago.

Halaber, gure 2017-2020 aldirako estrategia berriarekin bat etorri, ingurumena errespetatzen dugu, prestakuntza eta komunikazio elebiduna bultzatzen dugu (euskara eta gaztelania) eta erakunde irisgarriaren, gardenaren eta hurbilaren irudia ematen diogu euskal gizarteari oro har, kalitateko lana eginez, horrek balioa eta babesa ematen baitie elikagaien segurtasunaren inguruan dauden egiturei. Era berean, gizartearekiko dugun konpromiso hori

betetz, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatu eta gardentasun-legea betetzen dugu.

Horrenbestez, Euskadiko Agenda 2030ean jasotako Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) identifikatu eta lerrokatu egin ditugu gure helburu estrategikoeekin, honela:



b. Gobernu organoak

PATRONATUA

Patronatua da ELIKAren gobernuko, administrazioko eta ordezkartzako organo goren. Organo horrek bere mende ditu fundazioaren kudeaketaren zuzendaritzatik eta kontroletik eratorritako aginte guztiak, fundazioak ezarritako helburu guztiak betearazteko beharrezkoak direnak. Honako hau da gure patronatuaren egungo osiera:

PRESIDENTEA	Bittor Oroz Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako sailburuordea Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak Saila		
PRESIDENTEORDEA	Peli Manterola Berrikuntza eta Elikagaien Industrien zuzendaria Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak Saila		
IDAZKARIA	Rogelio Pozo AZTI-Tecnaliako zuzendaria		
BATZORDEKIDEA	Asier Arrese Zuzendari-gerentea HAZI fundazioa	Juan José Aurrekoetxea Osasun Publikoa eta Adikzioak arloko zuzendaria Osasun Saila	M^a Olga Santamaría Kontsumobideko zuzendaria
	Leire Barañano NEIKER-Tecnaliako zuzendaria.	Leandro Azkue Arrantza eta Akuikultura zuzendaria Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak Saila	
	M^a Luz Ruiz Aurrekontuen arloko zuzendaria Ogasun eta Finantzen Saila	Jorge Garbisu Nekazaritzaren eta Abeltzaintzaren arloko zuzendaria Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak Saila	

c. Aliantzak eta interés taldeak

Gure interes taldeak 6 multzo handitan daude sailkatuta: patronatua, bezeroak, kolaboratzaileak, pertsonak, hornitzaileak eta gizartea.



- **PATRONATUA:**
Eusko Jaurlaritza (Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politika, Osasuna, Ogasuna), AZTI, Neiker, HAZI eta Kontsumobide.
- **ALIATU ESTRATEGIKOAK:**
Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako Sailburuordetza eta zuzendaritzak, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza, AZTI, Neiker, HAZI, Kontsumobide, foru-aldundiak (nekazaritzako eta abeltzaintzako zuzendaritzak), Eudel.
- **ZERBITZUEN HARTZAILEAK / BEZEROAK:**
 - **Administrazioa:**
kudeatzaile politiko eta teknikoak: Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta udalak
 - **Elikakateko operadoreak:**
elkarteak, sindikatuak, industriak, nekazaritza- eta abeltzaintza-sektoreetako eragileak, abeltzaintza- eta nekazaritza-sektoreetako ustategiak, pentsu-fabrikak eta abar.
 - **Ikerketa-zentroak:**
unibertsitateak, zentro teknologikoak..
 - **Kontsumitzaileak**
- **KANPOKO LAGUNTZAILEAK:**
Euskalit, Zientzia Batzordea eta adituak.
- **FOROAK ETA SAREAK:** Katilu, Q-EPEA, Funko, Europako sareak ...
- **ELIKAKO KIDEAK**
- **ANTZEKO ERAKUNDEAK / ELIKAGAIEN SEGURTASUNeko AGENTZIAK:**
Estatukoak eta autonomietakoak: AECOSAN, ACSA, AASA...
Europakoak: EFSA, FSA, ANSES...
- **GIZARTEA**

BEZEROAK ETA KOLABORATZAILEAK

Gure **bezeroak** gure produktu eta zerbitzuen hartzaile diren erakunde eta/edo pertsonak dira, gure erakundean traktore-lana egiten dutenak. Hiru bloke handitan banatzen dira: administrazioa, elikakatea eta kontsumitzaileak.

Bestalde, gure produktu eta zerbitzuak diseinatzeko eta garatzeko egiten ditugun jardueretan nolabait parte hartzen duten **kolaboratzaileen** sare handia ere badaukagu.

Horiekin guztiekin etengabeko kooperazio- eta lankidetzaren harreman ona dugu, eta, horrez gain, epe luzearako konfiantzazko harremana ere ezartzen saiatzen gara; hartara, modu irigarrian tratatzen ditugu, betiere gure profesionaltasuna mantenduz eta egoera berrietara etengabe egokituz, beharrezkoak diren hobekuntzak eta berrikuntzak txertatuz.

- **Gure bezero eta kolaboratzaileen asebetetasun-maila: 8,18**

PERTSONAK

Elikan lan egiten duten **pertsonak** dira erakundearen baliorik garrantzitsuen eta, aintzat hartuta gure oinarria ezagutza dela, ezinbestekotzat jotzen dugu etengabe jasotzen dugun prestakuntza.

Pertsona guztiok egiten dugu lan estrategia definitu eta ezartzeko, baita lan-giro atsegina sortzeko ere. Horri garapen pertsonala eta bizitza pertsonala eta profesionala bateratzeko erraztasunak gehituta, **handitu egiten da pertsonok** ematen ditugun **produktu eta zerbitzu guztiekiko dugun motibazioa, konpromisoa eta inplikazioa.**

- Elikako pertsonen asebetetze-maila: 9

HORNITZAILEAK:

Hornitzaileak gure baliabideen bitartez eman ezin ditugun ondasun eta zerbitzuak eskaintzen dituzten eragileak dira, gure beharrezko eskaintza ekonomiko erakargarriekin erantzuten dietenak. Hornitzaileak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legean ezarritakoaren arabera kontratatzen dira, eta kontratazioei buruzko informazio guztia gure webguneko gardentasun-atarian dago eskuragarri. Konfiantzazko harreman erraz eta ona daukagu gure hornitzaileekin.

- Elikaren hornitzaileen asebetetasun-maila: 9,29

GIZARTEA

Guretzat, gizartea gure lanaren inguru soziala da, eta, beraz, gure jardueraren eragina jasan dezake. Fundazio publiko garen heinean, gizarteari balioa emateko sortu ginen, eta ezinbestekotzat jotzen dugu, beraz, konpromiso soziala, bereziki, bost arlo hauetan: gardentasuna sustatzea, berdintasuna bultzatzea, euskararen erabilera indartzea, datu pertsonalak babestea eta ingurumena errespetatzea. Halaber, jarduketa zehatzak gauzatzen ditugu ekarpen sozialaren esparruan, gure inguruan dauden beharrezkoak estaltzera bideratuta daudenak.

- Gizartearen asebetetasun-maila: 8,21

d. Prozesuak eta ezagutza-esparruak

Gure kudeaketa-eredua prozesukako kudeaketa da; horrenbestez, honako prozesu hauetan daude jasota gure ekintza guztiak:

- P01 – Estrategiaren eta kudeaketaren planifikazioa
- P02 – Prozesuak eta berrikuntza
- P03 - Pertsonen kudeaketa
- P04 - Aholkularitza
- P05 - Zaintza teknologikoa eta adimen lehiakorra
- P06 - Prestakuntza eta informazioa
- P07 - Aurrekontuaren eta administrazioaren kudeaketa
- P08 – Hornitzaileak eta baliabideak

Horrez gain, hainbat **ezagutza-esparru** definitu ditugu, lantzen ditugun gai guztiak jasotzen dituztenak:

- Elikagaien segurtasuna

- Nekazaritza
- Abeltzaintza
- Arrantza
- Elikagaien industria
- Animalien elikadura
- Elikadura jasangarria
- Elikadura osasungarria

2. KULTURA ESTRATEGIKOA

a. ELIKAREN misioa

ELIKAREN MISIOA



ELIKA EUSKO JAURLARITZAK SUSTATZEN DUEN FUNDAZIO BAT DA, ETA EUSKADIKO ELIKAGAI SEGURTASUNA HOBETZEA DU HELBURU, HONAKO HAUEN BITARTEZ:

- A
 Administrazioei **aholkularitza zientifikoa eta teknikoa** emanez, elikagaien segurtasunaren arloko politikak ezar ditzaten.
- B
 Elikadura-kateko **langileei lagunduz eta babesa emanez**, elikagaien segurtasuna bermatzeko betekizunak ulertu eta aplikatu ditzaten.
- C
 Elikagaien segurtasunaren arloan gaur egun garrantzi handiena duten gaien inguruko **informazioa emanez eta komunikazioaz arduratuz**, euskal gizartea jakinaren gainean egon dadin eta balioa emateko.

ELIKAK elikagaien segurtasunean inplikaturako eragile guztiek (administrazioek, elikadura-kateko langileek, teknologia-zentroek eta unibertsitateek, eta kontsumitzaileek) lan horretan **lagundu eta parte har dezaten** lortu nahi du, elikagaien segurtasunaren arloko erronkei **erantzun berritzaileak eta integratuak** eman ahal izateko.

b. ELIKAREN ikuspegia

ELIKAREN IKUSPEGIA
ELIKAK EZAUGARRI HAUEK IZAN NAHI DITU 2020an:

- **Euskadin erreferente** izan nahi du Elikagaien Segurtasunaren arloan.
- **Bikaina eta ezinbestekoa** izan nahi du administrazioarentzat, elikadura-kateko langileentzat eta euskal gizartearentzat.
- **Aurrerapausoak** eman nahi ditu kudeaketan eta lan kooperatiboan eta parte-hartzailean.
- **Kide** motibatuak, konpromisodunak eta gogobeteak izan nahi ditu.

c. ELIKAREN balioak

PROFESIONALITASUNA: : gaitasun teknikoa, kalitatezko lan erabilgarria, erabakitzaileak, eraginkorrak eta efizienteak.

LANKIDETZA ETA ELKARLANA: informazioa eta ezaguera partekatzea.

KONFIANTZA: fidagarritasuna, eskuragarritasuna eta tratu hurbila.

EGOKIGARRITASUNA: : egoera berrien aurrean behar errealetara egokitzea.

d. Helburu estrategikoak

OE1

Funetsezko tresna izatea Euskal Administrazioaren Elikagaien Segurtasunaren arloko politikak definitzeko eta ezartzeko.

OE2

Elikagaien Segurtasuna sustatzea elikagaien ekoizpen-katean.

OE3

Elikagaien Segurtasunari buruzko informazio eta komunikazioaren hedapena hobetzea eta indartzea.

OE4

Elikagaien Segurtasunaren arloan herritarrentzat erreferentea den erakunde bat izatera iristea.

OE5

Erakundeak kudeaketa aurreratua eta berrikuntza sustatzea.

Hau da gure Mapa Estrategikoa:



e. 2019ko ekintzen laburpena

Hauek izan dira ELIKAK 2019an bere jarduketa-esparruetan egindako ekintzarik azpimarragarrienak:

1. Aholkularitza zientifikoa eta teknikoa

Euskal administrazioari aholku eta euskarri teknikoa ematen jarraitu dugu, hala zuzenean nola zeharkako idazkaritza teknikoen bidez. 2019an honako jarduera hauek nabarmendu behar dira:

- ✓ **Arriskuen analisirako** sistematika indartzea, elikagaien segurtasunaren arloko erabakiak hartzeko oinarri gisa. 3 idazkaritza tekniko: Elikagaien Segurtasunerako Batzorde Zientifikoa, Arriskuen Mahai Teknikoa eta Elikagaien Segurtasunerako Batzorde Kudeatzailea.
- ✓ Aholkularitza teknikoa **Elikagaien Segurtasunaren Arloko Ikerketa Koordinatzeko Plana** 2017-2020 izeneko planaren urteko hedatzean: Elikagaien Segurtasunaren arloko Koordinazio Mahaiko idazkaritza-lanak egitea, ikerketa-beharrizanak identifikatzea eta lehentasun-ordena ezartzea, horiek guztiak proiektu bihurtzea, hainbat ikerketa-erakundek proiektu zehatzetan duten parte-hartzea koordinatzea eta ikerketa-plataforma dinamizatzea.
- ✓ **EAEko Nekazaritzako Elikagaien Katea Ofizialki Kontrolatzeko Autonomia Plana** dinamizatzea. Bertan aholkularitza- eta dinamizazio-lanak egin ditugu lan taldeetan, baita koordinazio-lanak ere, parte hartu behar duten administrazioen artean (Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak Saileko hainbat zuzendaritza): 6 idazkaritza tekniko.
- ✓ Proiektu hauek sustatzea eta dinamizatzea:
 - **Gaztaren Segurtasuna Hobetzeko** Jarduketa Plan Integrala.
 - Abeltzaintzan **Antibiotikoen Erabilera Murrizteko** Erakundearteko Jarduketa Plana (RAM-Euskadi).
 - Euskadin **Q Sukarra Zaintzeko eta Kontrolatzeko Plana**.
- ✓ Aholkularitza teknikoa ematea EAEn nekazaritzako produktuak ekoizteko betekizun higieniko-sanitarioei buruz:
 - Barazkien eta ogiaren/gozen/irinen sektoreetarako betekizun higieniko-sanitario **malgutuen** berri ematen duten **jarraibide teknikoak** argitaratzea.
 - **Lehen mailako jarduera berrietarako betekizun higieniko-sanitarioak** ezartzea abeltzaintza-ustiategietan: eztiak, arrautzak eta barraskiloak. Hurbileko salmentan bete beharreko betekizun higieniko-sanitarioei buruzko aholkularitza: EAEn **nekazaritzako elikagaiak hurbil saltzeko** dekretuaren zirriborroa. Lehen sektoreko ekoizleen erregistroak koordinatzea foru-aldundiekin.
 - Lan talde bat osatzea merkatuak eta azokak antolatzeko ordenantza-ereduak sortzeko.
 - **Animaliak garraiatzeko ibilgailuak garbitzeko eta desinfektatzeko** zentro txikiak baimentzeko autonomia erkidegoko araudia egiten laguntzea.
 - **Biozidak** aplikatzeko prestakuntza baliozkotzeko prozedura ezartzea.

✓ Euskadiko **Elikagaien Xahuketaren Aurkako Estrategia** ezartzea (**jarduketa-plana: 6 ildo**):

- 4 lan talde dinamizatzea: LT-Diagnostikoa, LT-Sentsibilizazioa, GT-Dohaintzak egiteko jarraibideak eta LT-Ikerketa eta soluzioak.
- Ekintza-plana diseinatzea eta ezartzea.
- Elikagaien Xahuketaren Aurkako Euskadiko Astea antolatzea (#Odespilfarroastea).

✓ Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak sustatzen duen **Euskadin elikadura osasungarria lortzeko egitasmoak** ezartzen laguntzea:

- Sasoiko elikagaien kanal anitzeko egutegia (**IAS 13**): egitasmo hori 594 establezimendutan ezartzeko lana zuzentzea eta hilero materialak banatzea (fitxak, kartelak, etab.), saltokietara eraman daitezen.
- Elikagai berezien kontsumo osasungarri eta arduratsua (**IAS 18**): lan taldean parte hartzea, osagarrien kontsumoari buruzko inkesta bat prestatzea eta emaitzak ebaluatzea.
- Elikagaien etiketatzea eta osagai nutrizionalak zaintzea (**IAS 17**): lan taldean parte hartzea.
- Osasun-arloko profesionalen laguntzea elikadura osasungarria sustatzen (**IAS 7**): bideo bat grabatzea, osasun-arloko profesionalen sasoiko elikagaien kontsumoak sustatzeari buruzko online prestakuntza emateko.

✓ **Euskadiko Gastronomia eta Elikadura Plan Estrategikoaren** ezarpenean laguntzea. Batzorde Kudeatzailean eta Elikadura eta Osasuna eta Sentsibilizazio lan taldeetan parte hartzea.

✓ ZTBPre barruko **RIS3 Espezializazio Adimendunaren Estrategiaren** ezarpenean parte hartzea, Katilu integratuz (Nekazaritza eta elikadura sektorerako eta landa- zein itsasertz-ingurunerako lankidetzan oinarritutako berrikuntza-espazioa).

✓ **GUNEAn** parte hartzea. 17 erakundek osatzen duten lan taldea da, Lehendakariaren zuzendaritzapean jarduten duena. Basque Country 2030 Agenda EAEko enpresa eta erakundeetan ezartzeko gidak egitea du helburu.

✓ **Ikastetxeetako jantokietara ematen diren menuetan tokiko produktuak sartzea** eta horien kudeaketa hobetzea helburu duten lan-batzordeetan parte hartzea.

✓ **Unibertsitateko ikasleei zuzendutako programa pilotua** (UPV/EHU, Mondragon Unibertsitatea eta Deustuko Unibertsitatea), elikadura seguru, osasungarri, jasangarri eta bereziari buruzko kontzientzia pizteko: 30 ikasle, 7 saio, 5 bisita.

✓ IHOBEk koordinatutako EAEko **Ekonomia Zirkularraren Estrategia** diseinatzen laguntzea.

✓ Elikagaien segurtasunari eta jasangarritasunari buruzko Europako 2 saretan parte hartzea: **ERANET CO-FUND SUSAN** "Animalia-jatorriko produktuak ekoizteko sistema jasangarrien Europako sarea" eta **OMEren sarea**, arrisku kimikoak baloratzeko.

2. Elikakateko operadoreen laguntza eta aholkularitza ematea

Horrez gain, elikagaien segurtasuneko politikak zabaltzeko aholkularitza-ekintzak gauzatzen jarraitu dugu, **inplikaturako eragile guztiekin lankidetzan arituz eta haiekin**

batera parte hartuz. Gure interes taldeen **238 eskaerari** erantzun diegu (% 47 elikakateko operadoreak, % 24 administrazioak, % 1 zentro teknologikoak eta unibertsitateak, % 11 komunikabideak eta % 5 herritarrak).

Bestalde, **11 prestakuntza-ekintza** antolatu ditugu, eta **434 pertsonak** hartu dute parte. Beren **asebetetze-maila 8,4 izan da:**

- ✓ Genoma osoaren sekuentziazioa elikagaien bitartez transmititutako zaintza epidemiologikoan mintegia; urtarrilaren 25ean, Gasteizen.
- ✓ Elikagaien Segurtasunaren arloko Ikerketaren Emaizak zabaltzeko VI. jardunaldia; martxoaren 14an, UPV/EHU (Donostia).
- ✓ Erauzketa-arrantzaren lehenengo mailako ekoizpenaren higiene-kontrol ofizialerako programari buruzko ikastaroa; martxoaren 22an, Arkauten.
- ✓ Elikakatea Ofizialki Kontrolatzeko Araubide Berriari buruzko ikastaroa; maiatzaren 14an, Arkauten.
- ✓ Pint of Science: Elikagaien Segurtasuna eta Zientzia Fikzioa; maiatzaren 20an, Gasteizen.
- ✓ Malgutasunak betekizun higieniko-sanitarioak aplikatzean; maiatzaren 24an, Zizurkilen (Gipuzkoa).
- ✓ EAEko hurbileko salmentari buruzko araudiaren gaineko jardunaldia; ekainaren 4an, Amorebietan (Bizkaia).
- ✓ Esne gordina eta gazte egiteko jardunbide egokiak; irailaren 26an Idiazabalen, azaroaren 5ean Berrizen eta azaroaren 8an Elburgon.
- ✓ Lehen sektoreko emakumeen ekintzailetza jardunaldia; azaroaren 29an Orona Ileon (Hernani).

Halaber, **8 ekitalditako antolakuntza-batzorde eta/edo batzorde zientifikotan** hartu dugu parte:

- ✓ Animalien Elikadurari buruzko VI. Nazioarteko Kongresua; apirilak 4 eta 5.
- ✓ Pint of Science ekimeneko antolakuntza-batzordea; maiatzak 20-22.
- ✓ UPV/EHUko udako ikastaroa: Elikadura-politikak tokiko administrazioan; ekainak 6.
- ✓ EatTrends ekimeneko antolakuntza-batzordea; urriak 3.
- ✓ INFODAY H2020- RIS3 EUSKADI-Elikagaien segurtasuna; urriak 4.
- ✓ Food Fashion Festival ekimeneko antolakuntza-batzordea; urriak 4-6.
- ✓ Elikagaien Segurtasuneko Eguneko batzorde zientifikoa; azaroak 17.
- ✓ Berdintasunari buruzko jardunaldia; azaroak 29.

Elika osatzen dugun pertsonok beste erakunde batzuek antolatutako **42 jardunaldi edo ikastarotan** parte hartzeko gonbita jaso dugu. Bereziki azpimarratzekoak dira elikagaien xahuketaren arloan egindakoak (11), baita elikadura osasungarri eta jasangarriaren arloan (9), elikagaien segurtasunaren arloan (7) eta elikagaien sor ditzaketen arriskuen (6) arlokoak ere.

Halaber, webgunean eskuragarri ditugun **tresnak** garatzen eta mantentzen jarraitu dugu, elikagaien ekoizpen-katean elikagaien segurtasuna sustatzeko, hala nola legeriaren datu-basea, Pentsuen Arriskuen Mapa, Elikagaien Segurtasunaren Sektorekako Betekizunak, etiketatzeari buruzko mikrositea eta abar. Horrez gain, ELIKapp aplikazioa ere hobetu dugu. Autolaguntzarako tresna da, elikagaien kontsumoari jarraipena egitea ahalbidetzen duena. Funtzionalitate gehiago ditu orain, adibidez, ingestioari buruzko eguneroko txostena,

denbora errealean, semaforo motako jarraipena egitea ahalbidetzeaz gain, gomendioak ematen dituena.

3. Informazioa zabaltzea eta jakinaraztea

EFSAk (Elikagaien Segurtasunerako Europako Agintaritzak) eta nazioartean elikagaien segurtasunaren arloan diharduten agentziek argitaratutako informazio zientifiko guztia hartu eta gure interes-taldeen esku jartzen dugu, hainbat formatutan (**albisteak, txostenak, artikulak, informazio-materiala, infografiak, etab.**); baita gure ohiko argitalpenen bidez ere (**webgunea, buletinak, blogak, sare sozialak, etab.**). Urtero, **ZT-AL Txosten** bat osatzen dugu, urtean zehar bildutako informazio garrantzitsuarekin. Urteko kudeaketa planari eragiten dioten erabaki estrategiko askorako, txosten hori hartzen da oinarri.

2019an elikagaien segurtasunarekin erlazionatutako **139 albiste** argitaratu ditugu, baita **hileko 11 ELIKABerri buletin** ere. Buletin horrek 557 harpidedun ditu, eta beren asebetetze-maila 7,8 da.

Halaber, **60 informazio-material** prestatu ditugu (fitxak, artikulak, infografiak, posterrak, etab.), baita **elikagaien eta pentsuen alerta-sareetan** egindako jakinarazpenei buruzko **lauhilekoko 6 txosten** eta alerta horiei buruzko **2 urteko txosten** ere. Horrez gain, eduki eta formatu berria duten **15 arrisku-fitxa** argitaratu ditugu (11 eguneratu eta 4 berri), **sasoiko elikagaiei buruzko 36 fitxa** eta **elikagaien xahuketaren aurkako 12 ekintzari buruzko 1 liburuxka**.

Webgune korporatiboari dagokionez, aurten berritu egin dugu, Wordpress formatuan. Batez bestez, **38.500 erabiltzaile ditugu** hilean; eta, guztira, **781.000 orrialde ikusi dira**.

Kontsumitzaileari zuzendutako webgunea erabat berritu dugu, edozein gailutatik eskuragarri egon dadin (Responsive). Webgunean zeuden **160 artikulak** migratu egin ditugu bertara (80 euskaraz eta 80 gaztelaniaz) eta **6.700 bisita** ditu, **batez beste, hileroko**.

Era berean, dibulgatiboagoak diren beste formatu batzuk ere baditugu, segurtasunaren arloko albisteak herritarrei helarazteko; hauek, adibidez: **Wiki-Elika**, elikadurari buruzko 1000 termino baino gehiago jasotzen dituena. Batez bestez, 20.000 orrialde ikusten dira hileroko.

Horrez gain, elikagaien segurtasunari buruzko informazioa sare sozialetan ere zabaltzen dugu (**7.840 erabiltzaile Facebook-en, Twitter-en eta LinkedIn-en**).

Guztira, **54 aipamen hauteman dira komunikabideetan**. Bereziki nabarmena da telebistako agerraldi kopurua, eragin mediatiko handiko programekin lankidetzan gabiltzalako: *A bocados*, *Teknopolis* eta *360°*. Halaber, prentsa idatzian egindakoak ere azpimarratzekoak dira, Eroski Consumerrekin edukiak zabaltzeko sinatutako hitzarmenari esker.

4. Erakundearen Kudeaketa Bikaina

Kudeaketa aurreratuaren Urrezko A jaso dugu Euskaliten ebaluazio talde batek baloratu eta gero, eta aintzatespen handia da kalitatearen, bikaintasunaren eta kudeaketa aurreratuaren sistemetan 14 urtez lanean ibil eta gero.

Gainera, **166.006 UNE arauaren** Zaintza Teknologikoa eta Adimen Lehiakorra sistema ere berritu dugu, zeina 2012tik egiaztatuta baitago. Hori gutxi balitz bezala, gure webguneko HON-Code (informazioaren kalitatea eta egiazkotasuna) eta WIS (osasun-intereseko webgune) egiaztagiria ere berretsi ditugu.

Bestalde, gogoeta bat abiarazi dugu gure helburu estrategikoak Nazio Batuen **Garapen Iraunkorrerako Helburuekin** lerrokatzeko, EAEko Agenda 2030ekin bat eginez. Era berean, **Berrikuntza Plana** ezarri dugu, etengabe eta sistematikoki berritu eta proiektu berritzaileen zorroa handitzeko.

Aurten, aholkularitza-enpresa baten zerbitzuak kontratatu ditugu, Europako Datu Pertsonalei buruzko Erregelamendu Orokorra (**DBEO**) egokitzen lagun gaitzan, indarreko legeria betetze aldera.

Beste arlo batzuei helduta, eguneratzen ari gara **Laneko Arriskuen Prebentziorako Plana** gure osasunaren zaintza kudeatzen duen enpresarekin, eta berriz ere ari gara baloratzeko Elikako laneko arriskuak.

Horrez gain, Interneten sektoreko emakumeei ikusgaitasun handiagoa emateko wikipaketetan ere hartu dugu parte, beren biografiak Wikipedian txertatuz. Ildo beretik, Hazi eta Neikerrekin batera antolatu dugu Emakunderen **Berdintasun** Foroaren esparruko Emakumeen Ekintzailetza Lehen sektorean jardunaldia.

Azkenik, Elikako pertsonok **40 prestakuntza- eta gaikuntza-ekintza** egin ditugu gaitasun teknikoei, giza gaitasunei eta pertsonen arteko gaitasunei dagokienez. Guztira, **237 ordu** iraun dute.

3. DIMENTSIO EKONOMIKOA

a. Balioa handitzea

ELIKAN jarduera eta zerbitzuen balioa handitzeko konpromiso sendoa dugu. Horrela, gure interes-taldeei eta bereziki gizarteari, ematen dizkiguten baliabideak itzuliko dizkiogu.

Gure lana erabateko gardentasunaz egiten saiatzen gara, eta, horretarako, jendaurrean jartzen ditugu Fundazioaren datu ekonomiko ikuskatuak. Erabateko gardentasunez lan egiten saiatzen gara, jendearen eskura jarrita fundazioaren datu ekonomiko ikuskatu guztiak. Gainera, lan-gai ditugun baliabideen kudeaketan eraginkortasuna bilatzeko, horiek kontrolatzea eta etekin handiena lortzea ahalbidetzen diguten tresnak erabiltzen ditugu.

ELIKAREN jarduera-markoa Eusko Jaurlaritzako Ogasun Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoak ezarritako betekizunekin osatzen da. Horiek guztiak “Gobernu arduratsuen gida”-n eta “Barne-kontrolaren funtzioa ezartzeko eta garatzeko eskuliburua”-n daude ezarrita.

Nabarmentzeko datu gisa aipatu nahi dugu aurreko urteetan lortu dugun informazioaren gardentasuna indartu egin dugula.

Aurten gardentasun-ataria sortu dugu, eta atarirako esteka zuzena jarri dugu gure webgune berrian: www.elika.eus

b. Balantzea eta emaitzen kontua

ELIKAKO kudeaketa-taldeak Jardueren Plana aurkezten du urtero, eta Ekonomia Garapena eta Lehiakortasuna Sailak aurrekontua ematen dio. 2019. urterako aurrekontua 700.000,00 € izan zen.

Aurrekontu horrekin, Urteko Kudeaketa Planean aurreikusitako jarduerak garatzen dira, patronatuak onetsia. Erika fundazio gardena a, eta, hiru hilean behin, gastuaren hileko segimendu ekonomikoa egiten du eta hura Eusko Jaurlaritzari bidaltzen dio. Gainera, datu ekonomiko guztiak bere webaren bidez argitaratzen ditu eta, urtero, ikuskaritza independentea egiten du; haren txosten osoa gure webgunean argitaratzen da.

Jarraian, 2019ko kontu ikuskatuen egoera-balantzea eta aurreko urtearekin egindako alderaketa aurkezten dira:

AKTIBOA	Oharrak	2019/12/31	2018/12/31
A) AKTIBO EZ-KORRONTEA		0	0
I.- <u>Ibilgetu ukiezina</u>	5	<u>0</u>	<u>0</u>
Aplikazio informatikoak		0	0
III.- <u>Ibilgetu materiala</u>	6	<u>0</u>	<u>0</u>
Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala		0	0
B) AKTIBO KORRONTEA		174.707	235.095
IV.- <u>Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak</u>	8	<u>0</u>	<u>2.394</u>
Hainbat zordun			2.394
VIII.- <u>Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak</u>		<u>174.707</u>	<u>232.701</u>
Diruzaintza		174.707	232.701
AKTIBOA GUZTIRA		174.707	235.095

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	Oharrak	2019/12/31	2018/12/31
A) ONDARE GARBIA		113.519	120.656
A-1) Fondo propioak	9	113.519	120.656
I.- <u>Sorrerako zuzkidura</u>		<u>486.668</u>	<u>486.668</u>
II.- <u>Erreserbak</u>		<u>6.800</u>	<u>6.800</u>
III.- <u>Aurreko ekitaldietako emaitzak</u>		<u>(372.812)</u>	<u>(330.254)</u>
IV.- <u>Ekitaldiko soberakina</u>		<u>(7.137)</u>	<u>(42.558)</u>
C) PASIBO KORRONTEA		61.188	114.439
III.- <u>Epe laburreko zorrak</u>	8	<u>1.597</u>	<u>3.723</u>
Kreditu-erakundeekiko zorrak		1.597	1.394
Bestelako pasibo finantzarioak		0	2.329
IV.- <u>Epe laburrerako zorrak taldeko eta elkartutako erakundeekin</u>	8	<u>9.267</u>	<u>8.958</u>
VI.- <u>Hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak</u>	8	<u>50.324</u>	<u>101.758</u>
Hornitzaileak		14.061	65.242
Pertsonala (ordaintzeko dauden lansariak)		349	0
Administrazio Publikoekiko bestelako zorrak	10.1	35.914	36.516
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA		174.707	235.095

4. GIZARTE DIMENTSIOA

a. Talde profesionala

Pertsonak dira ELIKAren politikaren ardatz nagusia. Beraz, familiako eta laneko bizimodua bateratzea, aukera-berdintasuna, hazkunde profesionala sustatzea eta laneko segurtasuna eta osasuna oinarrizko ardatzak dira pertsonen kudeaketan.

ELIKAKo giza taldea diziplina askotarikoa da; zehazki, zenbait adarretako bederatzi profesionalek (elikagaien teknologoak, biologoak, albaiariak, ingeniariak agronomikoa, enpresen administrazioa eta zuzendaritza, zuzenbidea) osatzen dute. Guztiek dute esperientzia Elikagaien Segurtasunaren alorrean, elikakateko katebegietan.

Fundazioko pertsonen kudeaketari buruzko informazioa emate aldera, langileei, azken urtean eginiko prestakuntza-saioei eta langileen gastuei buruzko datuak eranstean ditugu.

ADINAK	35 eta 49 urte artean	8
	50 eta 55 urte artean	1
GENEROA	Gizonak	3
	Emakumeak	6
IKASKETA-MAILA	Goi-mailako tituludunak	9
LANBIDE KATEGORIA	Zuzendaritza	1
	Teknikariak	8
	Administrariak	0
ANTZINATASUNA	Antzinasun handiena	18 urte
	Batezbestekoa	12 urte
KONTRATU MOTA	Mugagabeak	%100
	Aldi baterakoak	0
PLANTILLAREN TXANDAKATZEA	Altak	1
	Bajak	1

ELIKAn, konpromiso irmoa dugu gure langileekin, ez bakarrik lan-arlokoa, baita pertsonala ere. Une oro bilatzen dugu pertsonen lan-asebetetzea areagotzea eta, horretarako, proiektu berritzaileak dinamizatzen eta bilatzen ditugu eta enpresan prestakuntza jasotzea sustatzen dugu.

PRESTAKUNTZA	2017	2018	2019
Prestakuntza jasotzen duten langileen %	100	100	100
Prestakuntza-orduak guztira	181	306	237
Pertsona bakoitzak jasotzen dituen prestakuntza-orduak	26	38	30
Prestakuntzaren eraginkortasunari buruzko balorazio globala (100etik)	82.6	81.6	76.8

ELIKAKo langileen lan-baldintzak urtero zehazten dira, berezko Hitzarmen Kolektiboaren bidez. Langile guztiak daude horren mende. Hitzarmen hori automatikoki eguneratzen da urtero, alderdietako batek behar bezala salatzen duenean salbu. Hitzarmen hori automatikoki eguneratzen da, urtero, aldeetako batek berariaz uko egin ezean.

Elikako langileen gastuak erakundearen aurrekontu osoaren % 65 inguru dira.

LANGILEEN GASTUAK	2017	2018	2019
ELIKAKo langileen gastuak	425.549	487.636	541.036
Gastu osoaren gaineko %	70,92%	60%	65%

Lanean osasun- eta segurtasun-baldintza egokiak bermatuta izateko, bereziki lan-arriskuak ezabatuz, Lan Arriskuak Prebenitzeko Plana garatu dugu, prebentzioko kanpo-zerbitzu batekin lankidetzan. Gainera, osasuna zaintzeko zerbitzua dugu; horren bidez, pertsona guztiei egin behar zaie, urtean behin, azterketa medikoa.

LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA ETA LANGILEAK	2017	2018	2019
Laneko arriskuen inguruko prebentzioan oinarritzko prestakuntza duten langileen %	15	20	20
Soldata-masari dagokionez segurtasunean eta osasunean egiten den inbertsioa	578,85€	420,39€	539,04€

Era berean, aurten gure **Kode Etikoa** eguneratu dugu. Bertan, balioak sustatzen dira lanean pertsonen arteko harremanetan, komunikazioan, informazioaren zabalkundean eta interes-taldeekin dauden harremanetan.

2019 honetan ere bere sasoian abiatutako dinamikekin jarraitu dugu, pertsonen kudeaketaren arloan egindako lanaren emaitza gisa:

- Barneko komunikazio-dekalogoia ezartzea, eta dekalogo hori betetzea.
- Batzarren kudeaketa hobetzeko eta horien eraginkortasuna handitzeko jarraibideak ezartzea.
- ELIKAren egungo eta etorkizuneko beharizanetara egokitutako prestakuntza-plana definitzea.
- Pertsonen konpromisoa eta inplikazioa erakundearen kudeaketan eta hobekuntzan, kualifikazio eta motibazio handiko taldeak osatzeko.

b. Gizartea eta ingurunea

2019 honetan, gizartearekin dugun konpromisoarekin jarraitu dugu. ELIKAK, fundazio publikoa den aldetik, bere izaeran du zerbitzu-bokazioa. Hain zuzen ere, horren erakusgarri dira ingurumenean eta oro har gizartean onurak eragiten dituzten eskumen gako hauek:

- Gure antolakuntza-kultura.
- Ezagutza gizarteratzea.
- Elkartasuna.
- Eredugarritasuna.
- Ingurumenarekiko konpromisoa.

Gure **Antolakuntza-Kultura** propioa sortu dugu, eta kudeaketa eraginkorra, arduratsua eta gardena ditu zutabe.

Gainera, **ezagutza gizarteratzen** dugu, webgunearen eta gizarte-sareen bidez argitaratuz. Halaber, prestakuntza-saioak eta jardunaldiak antolatzen ditugu gure esparruan gaur-gaurkoak diren gaien inguruan, eta prestakuntza-materialak sortzen ditugu, elikagaien segurtasunaren hainbat arlo profesionaleri, kontsumitzaileei eta oro har gizarteari hurbiltzeko.

Sare sozialetako bultzadari esker, 7.840 jarraitzaile lortu ditugu 2019an (2013an, 974 genituen), hiru sare sozialen artean: Facebooken, Twitterren eta Linkedinen.

Elikagaien Segurtasuna kalera eramán dugu; horretarako, Pint of Science 2019 antolatu dugu; horretan ere hizlari gisa parte hartu dugu.

Gainera, gure webguneko edukiak Honcode eta WIS (Osasun Intereseko Webgunea) akreditazioak lortu ditu. Hain zuzen, horiek erakusten dute webgune horretan agertzen den edukia egiazkoa eta kalitatekoa dela.

Adibide izan nahi dugu, eta gure hornitzaileei kontratazio-pleguetan zehaztutako baldintzak betetzeko eskatzen diegu, berrmatze aldera, guk bezala, **ingurumenarekin konpromisoa** dutela, ez dituztela legeria eta langileen eskubideak hausten, eta gizakien eta haurren eskubideak ere, ahal dela, ez direla urratzen.

5. INGURUMEN DIMENTSIOA

a. Ingurumenarekiko konpromisoa

Bi zutabe nagusi dira ELIKAREN ingurumen-politikaren euskarri:

- **Gure jarduerak ingurumenean duen eragina murriztea**, geure prozesuetarako beharrezkoak diren natur eta energia baliabideen eta lehengaien kontsumoa al bait gehien murriztuz, eta al bait hondakin gutxien sortuz.
- **Informazio, prestakuntza eta lan-giro egokia eskaintzea geure langileei**, ahalegina egin dezaten erakundearen ingurumen arloko helburuak eskuratzearren.

ELIKAREN jarduerak ez du eragin garrantzitsurik ingurumenean; baina, hondakinak sortzen ditugun heinean, al bait gehien murrizten gara. Gainera, berrerabiltze- eta birziklatze-praktikak erabiltzen saiatzen gara, ahal den guztietan.

Gainera, “erosketa berde”-ko irizpideak erabiltzen dira, ingurumenari dagokionez arduratsuak diren hornitzaileak erabiltzeko beti.

a. Ingurumen zeregina

Instalazioak Arkauteko teknologia-parkean daude, ELIKAREN gizarte-egoitza dagoen lekuan, eta bertan badaude hondakinen bilketa selektiboa egiteko aukera; beraz, halako kasuetarako gomendagarriena den "ziklo garbia" betetzen dela bermatzen dugu.

Horrez gain, ura eta energiaren kontsumoa kontrolatzeko eta arrazionalizatzeko joera dugu. Duela zenbait urte ordeztu genuen berogailu-sistemako galdara biomasa-galdara batengatik, eta, orduetik, EAEko egurra erabiltzen dugu neguan bulegoa bero mantentzeko. Kontsumo elektrikoa ere murriztu dugu, ordenagailuen pantailak LED pantailengatik ordeztuz.

Paperaren kontsumoari dagokionez, erabiltzen ditugun orrien gramajea 80 gramotik 75 gramora murriztu dugu, baita papereko argitalpen kopurua ere. Gauzak horrela, orain formatu digitaleko askoz ere argitalpen gehiago egiten dugu, baita jardunaldi eta ikastaroetan banatzen ditugun material gehiago ere. Ildo beretik, inprimatze-jardunbide egokien arabera jarduten dugu paperaren kontsumoa murrizteko, eta, beraz, inprimatze eraginkorreko ekipo bat erosi dugu. Gauzak horrela, tonerraren kontsumoa ere murriztu dugu.

6. ETORKIZUNeko ERRONKAK

HELBURU ESTRATEGIKOAK

- Elikagaien Segurtasunaren inguruko politikak definitzeko eta hedatzeko tresna garrantzitsua izaten jarraitzea.
- Elikagaien Segurtasuna sustatzea elikagaien ekoizpen-katean.
- Elikagaien Segurtasunaren arloko informazioaren eta komunikazioaren zabalkundea hobetzea eta sustatzea.
- Herritarrentzat Elikagaien Segurtasunean erakunde erreferente izatea.
- Kudeaketa aurreratua eta berrikuntza sustatzea erakundearen.

HELBURU EKONOMIKOAK

- Gutxieneko eta nahitaezko finantzazioa finkatzea.
- Inguru sozioekonomiko aldakorrera egokitzeko ahalmena mantentzea.
- Aurrekontu-ekitaldiz aurrekontu-ekitaldi cash flow positiboa izatea.

GIZARTE HELBURUAK

- Elikagaien Segurtasunaren inguruko prestakuntza-edukiak zabaltzea eta zabalduetako informazioaren kalitateari eustea.
- Berdintasun-politikak eta Euskararen erabilera bultzatzen jarraitzea.
- Gizarte-sareetako presentzia eta garrantzia handitzea.
- Lortutako aitorten-mailari eustea.

INGURUMEN HELBURUAK

- Joan-etorrietatik eratorritako isurketak konpentsatzea.
- Lekualdatzeetan autoa partekatzea.
- Gasaren eta elektrizitatearen kontsumoa murriztu da.